

**FARMABIDE ZENTRO-ra BISITA
VISITA AL CENTRO FARMABIDE**

2022-05-16 Galdakao 16-05-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua; Foru Aldundi-en, Osasun saila-ren, Osakidetza-ren, eta Farmabide-ren arduradun eta kide guztiok, jaun andreok, arratsalde on eta eskerrik asko benetan gaur ikusteko eman diguzuen aukeragatik.

Eskerrik asko proiektu hau martxan jarri duzuen arduradun eta profesional guztioi. Eskerrik asko Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru aldundien artean egindako lan partekatuarengatik. Baita Galdakaoko Udalari ere gure esker ona zentro berri hau eraikitzeke lurak eskaintzeagatik.

Farmabide zerbitzu soziosanitarioa hobetzeko urrats berri bat da, Euskadiko egoitzetako farmazia-prestazioan mugarri izango dena. Proiektu aitzindaria eta berritzailea da. Guztira 3 milioi euro inbertitu ditugu 1.000 metro karratu baino gehiago duten instalazio berri hauetan.

Farmabide supone un antes y un después en la prestación del servicio farmacéutico a las residencias de Euskadi.

Hemos invertido 3 millones de euros en estas nuevas instalaciones que cuentan con más de 1.000 metros cuadrados. Aquí se preparará y se suministrará la medicación, en dosis personalizadas, a casi 140 residencias públicas y privadas que cuentan con más de 100 camas. Farmabide mejorará la seguridad, la calidad y la eficiencia de la atención de las más de 13.700 personas que viven en estas residencias.

Este es un proyecto pionero e innovador en el ámbito sociosanitario. Está alineado con las líneas estratégicas que compartimos: innovación, modernización, desarrollo tecnológico, colaboración interinstitucional, coordinación sociosanitaria y trabajo común al servicio de las personas. En definitiva: “auzolana”.

Farmabide abian jartzea mugarri bat da, farmazia-arretaren eredu berri bat egoitza-eremuan, punta-puntakoa, berritzailea eta kalitatezko zerbitzua

eskainiko duena. Hemendik, 100 ohe baino gehiago dituzten ia 140 egoitza publiko eta pribatuei zuzeneko zerbitzua eskainiko zaie. Farmabidek egoitza horietan bizi diren 13.700 pertsoneri medikazioa emango die. Honen bidez arretaren segurtasuna, kalitatea eta eraginkortasuna hobetuko dugu.

Farmabide no nace con la construcción de este edificio. Ha sido necesaria una planificación y visión de futuro compartida. Hemos desarrollado un estrecho trabajo con las instituciones forales y locales, con el conjunto de grupos empresariales y con las propias residencias, para poner en marcha un nuevo modelo de gestión.

Hemos aprobado un Decreto que ordena los servicios de farmacia de las residencias. El Departamento de Salud y las residencias están adecuando sus depósitos de medicamentos. Hemos incorporado personal farmacéutico desde Osakidetza que prestarán su servicio en colaboración con las residencias y en esta instalación del Hospital de Galdakao-Usansolo. Hemos integrado el equipo profesional farmacéutico en los equipos asistenciales de las residencias, con acceso a la Historia Clínica de Osakidetza, Osabide y la Receta Electrónica.

Este ha sido un proceso modélico de colaboración interinstitucional y público-privada. Un proceso minucioso fruto de la gestión del conocimiento, la innovación, la inversión en nuevas tecnologías y la apuesta por la mejora continua.

Farmabide posibilitará una atención de calidad con un elevado nivel de seguridad. Esta misión es de vital importancia dado el elevado consumo de medicamentos que reciben estas personas: el 70% son personas polimedizadas; un tercio de las personas tienen prescritos más de 10 medicamentos.

Hemos iniciado ya el camino. La primera residencia se encuentra en Dima, Arratiako Egoitza. Este mismo mes continuaremos con la residencia Ama Xantalen de Irún y con San Roke en Laudio.

La puesta en funcionamiento de Farmabide supone un hito, un nuevo modelo de atención farmacéutica en el ámbito residencial, puntero, innovador y de calidad.

Eskerrak emanaz amaitzen dut. Kudeaketa-eredu berri honen garapenean parte hartu duzuen guztioi. Aipamen berezia gure adineko pertsonen medikazioa hobeto erabiltzeko Farmabiden lanean ari zareten profesionalei.

Eskerrak ere Osasun sailari eta Osakidetzari. Pandemiak ahalegin handia eskatu duen arren, zerbitzuaren hobekuntzaren alde lana egiten jarraitu duzue arlo guztietan. Farmabide proiektua eta zentro berri hau adibide garbiak dira.

Además de responder al compromiso que la pandemia está suponiendo en el día a día desde hace más de 15 meses, habéis seguido trabajando por la SALUD con mayúsculas y por la mejora de la atención sociosanitaria. Farmabide es el mejor ejemplo de esta actitud y este compromiso compartido.

Pertsona guztien osasuna bermatzea da gure konpromiso nagusia. Konpromiso hori, pandemiaren aurkako borroka gogorraren ondorioz, indartu egin da.

Gure esker ona Osasun Sailari eta Osakidetzari, Foru aldundiei eta profesional guztiei. Egunero lortzen duzue herritarrei eskaintzen diegun zerbitzua geroz eta hurbilagoa eta eraginkorragoa izatea.

Beraz, gaurko honetan zorionak eta eskerrik asko!